

IZKUNTZAK GALTZEN?

IZKUNTZAK GALTZEN?

Gaur izparringian irakurri dodan albiste batek bultzatu nau idaz-lan au gertatzera: 6.500 izkuntza ei dagoz munduan. Nik askoz geiago zirala uste neban, baiña jakitunen esana da eta bego. Baiña izkuntzarik geienak galtzera ei doaz, gitxi batzuk geroago ta indar aundiagoa artzen doazen artean. "Unesco" k diñoana ei da ori.

Eta ori orrelan izan ezkeror, zer izango da gure euskeraz?

LATIÑARI JAZOA

Euskerea baiño askoz geiago zabalduta egoan latiña, eta indartsuago igon zan Ikastetxe Nagusietara, baiña latiña ortxe il zan, jakitunen artean erabilten zalako. Orregaitik gertatu eutsoen egoitz ain ederra bere asken urteetan: Jakitunen artean il zan, baiña il egin zan.

Eta latiña egoitz eder orretan bizirik egoala, latin berba egiten eban erri zeia zer egin eban? Latin berba egin baiña txarto, lendik eurak eukun izkuntzagaz nastatuta eta orrelan Ikastetxe Nagusietatik kanpoan latinkumeak bizi ziran: Portugaldarra, frantziarra, italiarra, errumanotarra, tirolarra eta abar. Or jarraitu eban latiñak bizirik, seme-alabengan gurasoak bizirik jarraitzen daben antzera.

ELEBITASUNA?

Izkuntzen burruka onetan elebitasuna izaten da urrats bat: Izkuntza zarra iltera doan artean, erbestetik etorritako beste izkuntza bat sartzen da eta biak batera bizi izaten dira luzaro. Ori da elebitasunaren aldia eta aldi orretan dago gure euskerea: Gure aitak eta amak ez ekien erderarik, guk euskerea eta erdereak biak darabilguz eta gure seme-alabak edo illobak ez dakie euskerarik. Negargarria!

ERRIAN ETA IKASTOLAN

Baiña euskereak ez dauko arean be ilteko gogorik eta euskaldunak be, eritxi guztietakoak batera dagozela, euskerea indartzea gura dogu.

Orretarako euskerea sartu dogu Ikastetxe Nagusietara, batxiller'era, ikastoletara... Or ilgo ete da latiña il zan leku berean? Bai erriak eta errian euskera egiten ez ba'dau eta erdereagaz geiegi nastauta egiten ba'dau. Errian egin bear da ba, euskerea, eta euskera garbia: Fr antzi'ko ta España'ko berbak larregi sartu barik. Au egiten ba'dogu, errian latiñari jazo jakona jazoko jako euskereari: bere lekuan izkuntza barri bat sortuko da, euskerakume bat, latinkumeak sortu ziran lez. Eta orduan bai, orduan euskerea euskal Unibertsitatean, gela eder baten eta jakintun-artean ilgo da.

ERRIARENTZAT LIBURUAK

Zer egin bear dogu ba?

Bidea argi dago: Errian euskerea garbitu, sendotu, zabaldu. Orixe da ain zuzen be EUSKERAZAINZTA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'ren zeregiña, bakarra edo beintzat aundiena.

Elburua elburu da, baiña zer egin bear dogu, zein da bide egokia, elburu orretara eltzeko?

Errietara joan eta antxe egin ekintzak. Esaterako euskerearen egunak, euskaldunai omenaldiak, liburuaren aurkezpenak eta abar.

Eta liburu irakurgarriak be idatzi bear dira. Gure erriak gitxi be gitxi irakurten dau, baiña idazleak be ez dakie erri-maillara jatsiten: Erriari bere gauzak azaldu bear jakoz, esaterako erri txikien edestia, erriko gizonen bizitzak, erriko abizenak, erriko toki-izenak... eta olako gauzak agertzeko irakurgai errezak idatzi eta eurai emon. Orixe izan da oraintsu idatzi dodan Milian liburuaren elburua eta elburu ori lortu be egin da. Erri txikietan askok irakurri dau eta neuri iragarri dautse ori. Antzera esan bear beste nire liburu batzui buruz: "Fruniz'tarrak len eta orain", "Mungia ta Mungiarak" eta "Gamiz'tarrak", au argiratu barik.

Eta omenaldiari buruz, aitatu daigun "36'ko gudan suizkillutatu idazte gazteak" liburu. Au asko zabaldu dogu eta eskerrak emonez 30 bat eskutitz artu dodaz. baiña Donostia'n egin gendun aurkezpen eder eta gogoangarri bat, beste bat datorren artean egingo dogu Bilbao'n eta irugarrena gertatzen diardugu Lurgorri'ren jaioterri zan Aramaio'n egiteko. Ba-dakit Aramaioarrak bizi-bizi dagozena aurkezpen orretan kideko izateko.

Gu gertu gagoz lan eder au egiteko, baiña zori txarrez diru-aldetik urri gabiltz. Liburu guzti oneik neure diruagaz ordaindu dodaz eta gero duan emon.

DANA ZERTARAKO?

Eta zertarako ainbeste alegin euskerearen alde? Ba, gure nortasuna ortxe dagoalako, gure edestiak ortxe daukazalako barririk ederrenak, aurretikoakandik artu dogun altxorrik aundiena dalako, beste erri guztien artean dagoan jakintza osotzeko bidea dogulako, euskereak euskalduna egiten daualako edo euskereak gure nortasuna sortu, sakondu eta indartu egiten daualako. Ez dogu bardin pentsatzen euskaldunak eta erdeldunak eta alde ori izkuntzaren indarra da geiena.

Ikasi daigun euskerea, sakondu daigun euskerea, zabaldu daigun euskerea, edertu daigun euskerea.

Olazar'tar Martin'ek.